

## Urte barri barri

BEGO MONTORIO



**K**OPA eskuan eta elkarri mosuak eta zorionak emanez ospatu genuen gurean urte berriaren etorrera, ez gara horretan batera orijinalak. Urtemugak ospatu zale izan ohi gara beti eta ez diogu muzin egiten mugaegen kolektibo hau bapozan eta edanez zeletzarari baina, dena esateko, sarritan pitzen zait zalantza jaiaren egin beharraz.

Bizi-ekortasuna leporatu izan diet inoiz urteak betetzen dituzten egunean kopetilan ibiltzen diren laguniki eta ez nuke orain horretan jausi nahiko, alafede baina, ez da esfortzurik gabe izango.

Gau majikoa omen denaren biharamunean karroxa auto kaxkar bilakaturik aurkitu dut, gasolinarik gabe gainera. Ordenadorea piztu eta 94ko diru-kontuen laburpena agertu zait: zeroek bezperako toki berean segitzen zuten, ezkerrean. Eta azkenik, gosariarekin batera hartzeko egunkariren ezean urteko ohiko balantzeak begiztatu ditudanean, ahaztu nahi nituen berri guztiak azaldu zaizkit sudurpera egia benetakoak direla gogoratu. Hau dun hau, bixamona!

Beroaldietako promesek eta asmo onek ezer gutxirako balio dutela sinestuta eta zorionak nori eta zergatik eman behar dizkiogun pentsatzen ari nintzela, gure amak umetan urteazharrez kantatzen zuen abestia etorri zait gogora «Urte barri barri, daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta niri...» Ez da, bada, formula txarra.

## Ustelak...

XAN KOSKARAT



**N**EGU hastapen huntan, harrigarriko zenbakiak agertzen dira. Giza Eskubideen sortzaile daukaten Frantses Estaduan, 600.000 jende aterberik gabe daude, 5.000.000 pertsonak bizitzeko behar den apalena ez dutelarik. Ber denboran, apartamenduak, etxeak, bulegoak, hutsik daude, promotoreek edo administratzailek ez dituztelakotz alokatu nahi. Espekulazio giro batean, saltze gogoia baizik ez dute, dirua irabazteko.

Zinez arrazoin zuen 'Abbé Pierre' apezak oihukatzen zuelarik: «... Alokatzeko orde, aterberik ez duten burrasoen aintzinean, apartamenduak, egoitzak funditzen dituztenak, arunt ustelak dira. Legean bilatu behar da zer aldatu behar den egoitzak ez hola funditzeko. Ogia beharrezkoa baldin bada bizitzeko, egoitza baten ukaitza ere premiatsua da...»

Ez dezagun sobera urrut beha. Gure eskualdean ere, ainitz daude irabazirik gabe, ahal den bezala egitera bortxatuak direnak. Ainitz etxe, apartamendu, urte osoan hutsik daude. Hamaika hilabetez, bigarren egoitza eta opporetarako bakarririk baliatuak direnak. Ainitz leku ere hutsik daude alokatzeko garestiegi dirrelako.

Gizarte madarikatua, baztertzeala, onets ezina... Baionako elkarre batek zioen: «Langabezia eta esklusioaren artean, mail biziki garrantzitsua bat da bizilekuaren galtzea. Ezin daitze bizi egoitzarik gabe. Hutsik dauden bizi lekuak behar dira bizitzeko lekuri ez dutenei banatu...»

Hori beste gauza bat da.

## HEMEROTEKA

### Noticias

#### Berriro hasi?

Nire ikuspegitik, objektiboki beharrezkoa da bai nazio osoan bai toki bakoitzean belaunaldi aldaketa bat gertatzea. Inondik ere oraindik egingizun dagoen aldaketa. Ez liderrak ez konprometitu nahi duten pertsonak ez dira falta. Bideak behar dira belaunaldi berriak proiektu desberdin eta ilusionagarri baten bidez bere burua ager dezatan.

Juan Cruz Allik, gure gobernuburuak, bere erakustaldi piroteknikoan zituenak eta ez zituenak erabili ditu. Denok argi eta garbi eta bere ahotik entzun ahal izan dugu UPNK izan be-



Urte berria... bizi berria

har duenari buruz dituen planteamenduk onartzen direla edo, bestela, aldegin eta Nafarroaz bultzatu nahi duen ikuspegia jasoko duen beste alderdi bat sortuko duela.

Alderdi berriaren abentura oso tentazio handia izan daiteke intelektual batentzat. Garai honetara iritsita, ordea, kontua



GALLEGO & REY / DIARIO 16

jakitea da ea beharrezko denboran dagoen hori sortzeko hauteskundeak baino lehen eta, orobat, ea dirua nondik aterako duen. Lehendakariak atzo jo zuen erronka oso sakontasun handikoa iruditzen zait. Bere asmoa alderdi bat sortzea barik UPNko organoak belduraraztea bada, arrisksuegia da. En-

bidoa onar diezaiokete eta orduan bai ez litzaiokeela sortzea beste biderik geratuko. Alderantziz, UPNtik aldegin eta erronkari bakarrak aurre egitea erabaki badu, lehenbailehen egin dezala denok argi eta garbi jakin dezagun zeri heldu behar diogun.

FERNANDO MUGICA

## ZUZENDARIARI

### Kartzelara doan horri...

Barne sentimentu izkutu batek bultzatuta edo, idazki xume hau osatuko duten lerroak idazteari ekin diot, izan ere ezin gera bainaitake halako ausardia azaltzen duen lagun-intsumisio baten aurrean mutua.

Duela urte dexente intsumisio egin zinean elkar ezagutu genuen. Garai hartan ez zegoen ez egun dagoen haize gozorik, giro zakarra zen oso intsumisioaren inguruan zebilena, eta militarrei aurre egin ezetik (nolanahiko axiloketak, gerra kontseiluak...) geure euskal gizartearen sektore zabal bat ere antimilitarismoaz kontzientziarazten nahikoa lan izan genuen, beti ere intsumisioaren zubia ezbiolentziaren eta desobediencia zibilaren zutabeetan oinarritzen genuelarik.

Zorionez garai haietan ereindako hazia- ren fruitua jasotzen hasi gara, baina gabiltza tentuz! urik gabeko landarea usteldu, kirastu eta sundatu egiten baita. Ureztatze prozesu honetan zu zara lagun, uen honetan ttanttarik bustikorrena, eraginkorra, arestian aipatu lorea tente eta zut mantentzen lagunduko duen iztilla.

Duela sei bat hilabete gerrarik gabeko gizarte baten alde lan egiteagatik epaitua izan zinean epailearen sententzia zain izango zen askok bagenekien, alegia, 1992. urtea baino lehenagoko intsumisioa izatea.

gatik 12 hilabeteko kartzela-zigorra izango zenuela. Jakin ere bagenekien urtebeteko kartzela zigorra jasanda ere ez zenuela kartzelara joan behar baldin eta lehenagotik delituren bat buruturik ez bazenuen, eta jakina hau ez zen zure kasua.

Zu aldiz, askatasuna lortzeko izenpetxo bat besterik ez bota behar zenuenean, epai guzti hauen zentuaz jabetu zinen, epailearen helburuz ohartu zinen. Intsumisioaren mugimendua zatikatzea, banatzea asmoa duen errepresio instrumentu berri honen aurrean, zuk, Irufean beste intsumisio askok egin duten legez, askatasuna eskuratzeari uko egin eta ilusioaren lorea ureztatzen duen iturria gehiago irekitzea lortu duzu.

Gipuzkoan estrategia hau hartzen duen lehena izateak nekea eta samindura sortaraziko dizkizu, erori berria duen elurrean bidea irakitzeko doanaren modura, baina goaon har ezazu gailurrera ailegatzeko garaian aurrean doanaren poza besteena baino sentikorragoa dela.

XABIER BALERDI

Ez dut inolaz ere hiru adiskide horien borondate ona zaltzatzan jartzen; eta garbi utzi nahi dut bihotzez eskertzen dieldala nirekiko jarrera.

Euskaltzain 'urgazle' nago (alegia, botorik gabe) orain dela 37 urte.

Arte luze horretan, hamaika euskaltzaileran lana hobetsi du Euskaltzaindiak, 'euskaltzain oso' izendapenaz; goi mailako izendapenaz aintzakotzat hartuz eta oheratuz.

Zozo batek ere somatuko luke arbuio iraunkor horretan, euskararen alde nik egindako lanarekiko ezespen ezin nabarmenagoa.

Normala da, ondorioz, eta gauzak honetaraz gero, 'euskaltzain oso' izendatua izateko desirarik batere ez izatea.

Beude gauzak, beraz, dauden bere horretan.

TXILLARDEGI Amasa (Gipuzkoa)

### Euskaltzaindia

Gaur goizean eguneko prentsa (EGUNKARIA barne) erosi eta irakurtzerakoan, ustekabe galanta jaso dut; Goenaga eta Arejitarenekin batera, neure fotoa topatzean.

Ageri denez, hiru euskaltzainek (nor ote diren ere ez dakit) Euskaltzaindirako nire kandidatura aurkeztu dute.

### Oharra:

Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 20 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idazti duenaren izena, telefona, helbidea eta NANen zenbakia ageri behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea.

## GAIA JARRITA



### Urte berria

Euskaldun denoi urte berri on opa dizuet aurrena, zorion asko, osasun ona eta bakea hurrena. Kirol arloan euskaldunentzat denboraldirik onena, azkenik euskal irakasleak ugaritzeko ahalmena, nahiz ta guztia ezinezko den bete daitela gehiena.

ZIHARA ENBEITA

## Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gorfailua: SS 800/90



OJDI IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URUA

Zuzendaria: MARTXEL OYAMENDI

Zuzendariordeak: FERMÍN ETXEZAHARRETA

Gerentes: LIZEN LAZKANO

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoitza nagusia: Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain / 30 02 22 / Erredakzio faxa: 30 02 55 / Publizitateko faxa: 30 07 07

Arabe: San Antonio, 20-1. Leher / 01005 Gasteiz / 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iruia Monastegia, 45-13 esk. / (Iruia dorrea) / 3101 Iruia / 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. Lehera. / 48003 Bilbo / 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panneau 14, 1/ 503 Posta Kutxatila, / 64100 Baiona / 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11